

Dokumentu mota: Idatziz erantzuteko galderak

Nori zuzendua: Osasun sailburuari

Izapidetze organoa: Legebiltzarreko Mahaia

Proposatzailea: Rebeka Ubera Aranzeta

Talde parlamentarioa: EH Bildu

Ekimenaren izenburua: Txertoen segurtasuna bermatzeko hotz katearen kudeaketari buruzkoa.

ZIOA

EH Bilduri helarazi zaion informazioaren arabera, Lasarteko eta Bilboko Arangoiti auzoko osasun zentroetan txertoak segurtasunez kudeatu eta herritarrei ezartzeko zaindu eta bermatu behar den hotz katea apurtu egin da, baina, hala eta guztiz ere, hainbat kasutan txerto horiek, hotz katea apurtuta, ipini dizkiete adingabe zein helduei. Eskuarlean dugun informazioaren arabera, txertoak ipini ostean ohartu ziren akats horretaz, txerto horiek ez zirela ipini behar, alegia.

Jakina da hotz katearen kudeaketa txertoen segurtasunean eragina duen adierazle nagusietakoa dela. Hala jaso zuen Osasun Sailak eta Osakidetzak iraungitako txertoen aferaren ondorioz sortu behar izan zuten Txertoen Ikerketa eta Trazabilitate Batzordeak auzi horren harira aurkeztu zuen txostenean. Hala zioen, hitzez hitz: *“Uno de los aspectos que inciden directamente en la seguridad y calidad del Proceso vacunal es la logística de almacenamiento y gestión de la cadena de frío desde su distribución hasta su administración. Las vacunas y otros productos inmunizantes utilizados en la prevención de enfermedades infecciosas son productos biológicos sensibles a las variaciones de luz, humedad, tiempo y fundamentalmente de temperatura. Para mantener la capacidad inmunizante de una vacuna desde su fabricación hasta su administración se debe conservar a la temperatura recomendada en todo momento. La alteración de las condiciones de conservación ideales va a producir la aceleración de la pérdida de potencia o la inactivación total de la vacuna y este proceso es irreversible y no es visible a simple vista”.*

Ez da hainbeste denbora pasa Osakidetzan iraungitako txertoak ipini zirela, Txertoen Ikerketa eta Trazabilitate Batzordeak ondorioak atera eta jarraibideak zehaztu zituela eta Fiskaltzak ere horri buruzko dekretua ezagutzera eman zuela. Bada, ez da ulertzen txertoen kudeaketan orain berriz ere beste gertakari larri bat gertatu izana, Osasun Sailak halakoak saihesteko neurriak hartu dituela behin eta berriz ziurtatu duenean.

Hori dela eta, komenigarria ikusi dugu ondorengo argibideak eskatzea.

IDATZIZ ERANTZUTEKO GALDERAK

1. Baieztatzen duzu Lasarteko eta Arangoitiko osasun zentroetan txertoen hotz katea apurtu dela eta, hala eta guztiz ere, kasu batzuetan txerto horiek ipini direla?
2. Nola ohartu ziren akats horretaz?
3. Nola da posible, iraungitako txertoekin gertatu dena gertatuta, orain, hilabete gutxitara, berriro ere beste arazo larri bat gertatzea txertoekin, hotz katearen kudeaketarekin orangoan?
4. Zein osasun zentroan gertatu da hori? Lasartekoan eta Arangoitikoan bakarrik edo gehiagotan?

5. Txertoak ipini aurretik inor ez zen ohartu txertoen hotz katea apurtuta zegoela? Zergatik? Sistema ez dago automatizaturik hotz katea behar bezala ziurtatzeko?
6. Zein dira, zehazki, hotz katea apurtuta ipini diren txertoak?
7. Zenbat herritarri ipini zaizkie txerto horiek Lasarteko osasun zentroan?
8. Eta zenbat Arangoitiko osasun zentroan?
9. Noiz gertatu zen hori Lasarteko anbulatorioan (data zehatzak)?
10. Eta noiz Arangoitikoan (data zehatzak)?
11. Osakidetza harremanetan jarri da jada txerto horiek ipini zaizkien herritarrekin, gertatu dena jakinarazteko?
12. Txertoa berriz ipini beharko die? Zein neurri hartu edo hartuko ditu akats hau zuzentzeko?
13. Eta, aurrera begira, zein izango dira neurri zuzentzaileak, horrelakoak ez direla berriz gertatuko bermatzeko?

Gasteizen, 2026ko ekainaren 18an

Rebeka Ubera Aranzeta
EH Bildu taldeko legebiltzarkidea eta bozeramaileordea